


Errudunak kartzelan?

Ricardo Guerra

Ricardo Guerraz gain, hilketan beste batzuek ere parte hartu zutela uste du familiak



EGUNKARIA

■ Aitor Zabaletaren familiak uste du hilketan ez zuela Ricardo Guerrak bakarrik parte hartu.

REALAK UEFA txapelketan jokatu zuen azken partidua hasi baino lehen gertatu zen guztia. Aitor Zabaleta Madrilera joan zen Izar taldeko kideekin, Reala animatzera. Madril, udaltzain batek El Parado Frente Atletico zale ul-tren tabernara bidali zituen Izar taldekoak. Hortik aurrera, Ricardo Guerrak Aitorren neska-lagunari eraso zion, realzalearen eta Guerraren arteko lehen istiluak sortu ziren, eta, azkenik, hiru lekutatik eraso koordinatua jasan ondoren, Aitor Zabaletak bihotzean jaso zuen Ricardo Guerraren labankada.

Epaiketa martxoan izan zen, herri epaimahaia aukeratu ondoren. Apirilaren lehen epaimahai horrek Guerraren hilketaren errudun zela erabaki zuen. Horrez gain, Guerraren hiru lagun ere (Ignacio Racionero, Ivan Martin eta Israel Gonzalo) hilketan parte hartzeagatik ikertu behar zirela erabaki zuen herri epaimahaia; hala ere, irailaren 18an, Madrilgo epaile batek artxibatu egin zuen hiru gazte horien kasua.

Hiru lagun horietako batak, Ivan Martinek, epaiketa egin baino lehen Poliziaren

aurrean lau aldiz aitortu zuen Ricardo Guerra Zabaleta hiltzen ikusi zuela; baina epaiketako egunean esandakoa atzera bota zuen, eta ez zuen onartu mehatxuak jaso zituenik. Hala ere, aitorpen horiek

ez zuten eraginik izan epaimahaian; bai, ordea, Ivan Martinek egon zirenen polizien deklarazioak. Haiei Martinek kontatu zizkienak onartu egin ziren. Gainera, Izar Peñako bi kidek Ricardo Gue-

rra identifikatu egin zuten Vicente Calderon estadioko segurtasun kamarek grabatutako bideo batean, eta epaimahaiko kideek aintzat hartu zuten bideoa. Horiek izan ziren herri epaimahaiaren fro-

Martxoan hasi zen epaiketan 75 lekukok deklaratu zuten, haien artean hiri taldeetan aditua den Madrilgo poliziburuak. Hark esan zuenez, Ricardo Guerra 1996an eta 1997an atxilotu zuten, labana erabiltzeagatik. Guerra Madril gertatutako beste hilketak bategatik ere ikertu zuten. Poliziaren txostenetan zehazten denez, Bastioneko kidea gizon arriskutsua da, eta Ignacio Racionero lagun mina du, Zabaletaren hilketarengatik iker-tua izaten ari dena.


ga garrantzitsuenak Guerra errudun zela erabakitzeke.

Hala ere, ez zen horrela amaitu kasua. Intolerantziaren Aurkako Mugimenduak aurkeztutako apelazio bati esker, Bastion talde ultraeskuindarrean parte hartzen zuten hamar kide ordenaren kontra egiteaz akusatuta epaituko dituzte. Espainian delitu horrengatik epaituko diren lehen kaskamotz eskuindarrak izango dira (Ricardo Guerra ere berriz epaituko dute).



GIZARTE-LANEKO UNIBERTSITATE-ESKOLA

ESCUELA UNIVERSITARIA DE TRABAJO SOCIAL



Informazio telefonoa:

943 / 46 01 75 / 72

8:30etatik 13:30etara

E-mail: scxirasm@sc.ehu.es

Faxa: 943 45 46 12

Aldapeta, 62
20009 DONOSTIA



G.B.L.H.I. EASO
BATXILERGOAK HEZIKETA-ZIKLOAK

Felipe IV Ibil., 1-B. AMARA
DONOSTIA.

«Peritos»ekin banatutako ikastetxea

☎ 943 45 54 22. Faxa: 943 47 00 22.

E-mail: ipeaso@facilnet.es

BATXILERGOAK:

- ☐ Teknologikoa
- ☐ Natur eta Osasun zientziak

HEZIKETA ZIKLOAK:

Erdi-Mailako

- ☐ Mekanizazioa
- ☐ Neurria egindako Arotzeriaren eta Altzarien Fabrikazioa eta Instalazioa
- ☐ Ekipo eta Instalazio Elektroni-koak

Goi-Mailako

- ☐ Erregulazio eta Kontrol-Sistema Automatikoak
- ☐ Ingurugiroko Kimika
- ☐ Arotzeriako eta Altzarigintzako Produktuen Garapena
- ☐ Eraikuntza-Proiektuen Garapeen eta Aplikazioa
- ☐ Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- ☐ Proiektu Mekanikoen Garapena

10
Egunkaria
urte

Zorionak Euskal Herria

www.egunkaria.com